

Hernanik kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 29a, asteazkena ::: 4.628 zk. ::: www.kronika.net

BASHERRI SAREA

Bilera gaur, barazki ekologikoak astero nahi dituztenekin

Urtzi Garciak baratza prest dauka eta orain talde bat sortu nahi du udaberrirako. Interesatuekin bilera dute gaur, 19:30etan, Biterin. Imanol Arana laguntzen ari zaio, eta han izango da.

BARAZKI ekologikoak eta bestelako produktuak astero nahi dituen guztiari dei egin diote gaur Biterira. Basherrri Sarearen barruan, Hernanin lehen ere Imanol Arana ari da 32 familiari barazkiak astero ematen, baina eskaera gero eta haundiagoa da, eta orain beste hernaniar bat animatu da helburu berarekin: Urtzi Garcia.

Aranaren laguntzarekin hasi zen Garcia pausoak ematen, eta momentu honetan baratza prest dauka udaberrirako barazkiak ematen hasteko. Garciak talde bat behar du orain, poliki-poliki martxan jartzeko, eta gaur deialdia egin dute interesatuekin, 19:30etan, Biterin.

Barazkiak baino gehiago

Imanol Aranak barazki otar bat ematen die astean bere bezeroei, baina sagarrak eta beste fruta batzuk ere bai garaia denean. Garciak ere barazkiak eskaini nahi ditu, baina baita gazta ere, eta esnea, ogia, sagardoa eta abar ere bai, hala nahi dutenei. «Inguruan baditut produktu hori modu ekologikoan egiten dutenak, eta uste dut nahi duenari hori ere eskaintzeko moduan izango naizela». Alde horretatik, Garciak iritsi nahiko luke «zuzeneko salmenta» egitera. Terrenoa herritik nahiko gertu alokatu du, Karabel eta Portu arteko erriberetan, eta hor ari da jo eta su baratza lanetan. «Txukundu dugu terrenoa eta baratzan hasteko garaia da».



Urtzi Garcia eta Imanol Arana, Osiñagako Altuna baserrian Aranak duen inbernaderoan.

Garaian garaikoa jaten ikasiz gero, urte guztian barazki aukera izaten dela dio Imanol Aranak.

«Modu tradizional»

Basherrri Sareak Gipuzkoa guztian funtzionatzen du, eta lan egiteko modu bat dauka, Aranak dioenez: «Baserriko betiko eran lan

egiten dugu; modu tradizional»an, estentsiboan, ez intentsiboan». Gipuzkoan 51 kontsumo talde ari dira Basherrri Sarearen barruan; tartean bat, Hernanin, Aranak daramakiena. Orain bigarrena sortu nahi dute.

Aranak beti ezagutu izan du baratza Altuna baserrian, Osiñagan, eta orain bera da hango martxa daramakiena. «Buru» beti martxan» eta lana etengabe egin behar, eta askorik ez duela ematen dio

berak, baina «bizitzeko adina bai», eta gustora dago. Ongarri kimikorik eta pestizidarik erabili gabe, plaga edo izurriak nahikoa lan ematen omen die, baina eskua hartua dauka Aranak. Ia 40 barazki barietate ekoizten ditu, batzuk inbernaderoan eta besteak kanpoan. Garaian garaikoa jaten ikasiz gero, urte guztian barazki aukera izaten dela dio Aranak. Gaur bileran izango da, jendeak ezer galdetu nahiko balio. ||

❖ TXOTX DENBORALDIA

Sagardoaren lurrean korrika: sagar lasterra

Txotx denboraldiaren barruan Sagar Lasterra lasterketa herrikoia antolatu dute aurten ere. Ia 9 km ditu karrerak, eta sagardoaren lurretan ibiliko da. Apuntzeko: www.kirolprobak.com. ||

❖ HARREMONAK

Bilera gurasoekin, institutuan egiten ari diren lanari buruz

Hernani BHI Institutuan tratatu onei buruzko saioak egiten ari dira azken bost urteetan. Gaur bilera monografiko bat egingo dute gurasoekin, saio horietan egiten dutenari buruz eta emaitzei buruz hitz egiteko, eta aurrera begirako asmoetaz hitz egiteko. Santa Barbara eraikinean, gaur, 17:30etan. ||

❖ SANTA AGEDA

Agedaren omenez etxetik ibiliko dira asteartean

Ageda 230 urtean jaio omen zen Sizilian eta famatu egin zen, Quintianus senadoreari ezkontzeko ezezkoa eman, eta sekulakoak eta bi eginda hil zutelako. Orduko gertaera omen da gaur egun Santa Agedaren errondaren iturri. Agedaren omenez urtero ateratzen dira Hernanin ere, Santa Ageda errondan. Ohitura Zaharrak abesbatzak entsaioa du urtarrilaren 31n, 20:00etan Biterin, eta Santa Ageda bezperan otsailaren 4an, erronda egingo du, 18:15etan Milagrosatik abiatuta.

Ereñotzuko Ur Mia elkar-teak ere egiten du urtero erronda. Entsaioa ostiralean egingo dute, 20:30etan elkartean bertan. Erronda berri, otsailaren 4an, Ur Miatik abiatuta. 16:00etan elkartu, eta 16:30etan abiatu. ||

“Goza ezazu
Iparragirreko
berrikuntzaz”

943 55 03 28 // 943 33 73 70
www.iparragirre.com

IPARRAGIRRE
TOLARE SAGARDOTEGIA



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz
ASEGURUAK

bizitza -
istripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

*agustin ezponda irizar
agentzia*

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

LEOKADIISTI
LIBURUDENDA • PAPERTEGIA

**LIBURUDENDA
ETA
PAPERDENDA**

Tfno.: 943 551 229
Juan de Urbietta, 6 behea

● **TELEFONAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Castilla** Urbietta 7 - 943 552941 ● **Gauzez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Goizean ostareren bat izan liteke baina arratsaldean euria asko botako du, eta trumoi arriskua ere izango da. Tenperaturak berdin. Min.6° / Max.10°
BIHAR Eguzki izpiren bat ikusiko dugun arren, euria gogotik egingo du bihar. Mendebala goizean eta ipar-mendebala arratsean, zakar ibiliko dira gurean. Min.5° / Max.10° (euskalmet)

URTEKARIA - HERNANI 2013

Karlistada, axeri dantzako trukoak eta abar, 2013 urtekarian

Udalak gaur aurkeztuko du Hernani 2013 Urtekaria. Guztira 17 gai jorratzen dira aurtengo urtekarian, historikoak, momentukoak...

BESTE behin ere gai pila ederrekin aurkeztuko dute Urtekaria Hernanin. 2013ko urtekariak karlista garaiko gotorlekuak Hernanin zein ziren azaltzen du, Alfredo Morazak idatzita, edo axeri dantzako Azerikeriak kontatzen ditu, Luis Telleriaren ahotik eta Jon Odriozolaren

eskutik. Bidaurreta baserria, Iturmendiko jentil zuloa, Errapia taldea, Uztapide eta Hernani... guztira 16 artikulatu ditu eta 2012ko kronika ere bai. Natura jorratzen du: liztor asiaticoa eta muskar berdeari buruz ari baita, eta baita ibilbide sareari buruz ere; hiru talde aurkeztuko ditu:

Goiz Eguzki elkarte, Errapia taldea eta Koxka elkarte. Xabier Plaza, Iosune Marin eta Ane Galardi hernaniarrak ezagutu litezke, eta badira bestelako gaiak ere, krisia, artea, eta abar, esaterako.

Gaur, 19:30etan, Udaletxeko Areto Nagusian. Aleak banatuko dira bertan. ■

◆ ESKUBALDIA

Goi mailako partidua ikusiz, Bera Beran.

Langile eta Urumeako ikasleak eskubaloian aritu dira eskola kirolean eta baita eskubaloian eskolan ere. Hasierako ikastaroari bukaera eman nahian, eskubaloia taldeak goi mailako partidua bat ikustera eraman zituen ikasle horiek, joan den larunbatean, eta Bera Bera taldearen partidua ikusi zuten zuzenean. Primeran pasa zuten, etorkizuneko jokalaritza gazteak! ■



🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Hernani BHI Institutuko guraso maiteak:

Gonbidapen bat egin nahi dizuegu gutun honen bidez. Arremanitz kooperatiba gara eta Harremonak egitasmoa garatzen dugu, Udaleko Berdintasun Sailak sustatua. Hernani BHI Institutuak azken bost ikasturtetan parte hartu du. Gure helburuak dira harremanak hobetzea, tratatu onak sustatzea, eta hezikidetzaren sexuen heziketa lantzea.

Ikasturte hasieran aurkeztu genizuen gure asmoa, gelaz gela. Ordutik hona gazteekin aritu gara, gustura, elkarrengandik ikasten. DBHn 2. 3. eta 4. mailatan eta batxilergoko 1. mailan aritu gara, baita gelaz kanpo ere. Zuen seme-alabekin egindako lanaren berri eman nahi dizuegu orain. Baita zuen iritzia eta eskaerak jaso ere.

Bilera gaur izango da, 17:30etan, Institutuko Santa

Barbara eraikinean.

Bestetik, esan genizuen bezala, aurreko gazteekin aritzeaz gain, herriko gainerako eragileekin ere Harremonak egin nahi ditugu: bereziki irakasleekin, eta zuokin, gurasoekin. Zuek zaretelako egunero haiekin zaudetenak, haien eredu zairenak. Gurasoek lan garrantzitsua egiten duzue, zaila gainera.

Nerabeen gurasoek bereziki, esker txarra eta kezka jasotzen dituzue maiz, eta behar baino arreta eta laguntza gutxiago.

Lanak atseginagoak izan ohi dira eta arinago egiten ditugu partekatzen ditugunean. Horregatik, aurreko tratatu onen plater berezi bat prestatu dugu zuentzat, eta guztiok zaudete dastatzera gonbidatuak! Hau otsailean izango da, Biterin, harremonetan sakontzeko gurasoentzako tailer txoa (bi orduko bi saio, goizez edo arratsalde). Bertan, gurasoen artean esperientziak

trukatuko eta baliabideak partekatzeko modua izango dugu. Gure partetik, zuen nahiak eta beharrak zein diren ezagutu nahi ditugu; eta bueltan, ondo merezita dituzuen tratatu onak zuei eskaini: esker ona, arreta, adorea eta laguntzeko prestutasuna. Ea zenbat animatzen zareten!! Tailerrerako data:

Goizez, otsailak 4 eta 18, astearteak, 10:30-12:30.

Arratsaldeak, otsailak 3 eta 17, astelehenak, 17:30- 19:30.

Gaurko bileran emango dizkizuegu behar beste azalpen. Bitartean, izena emateko edo zalantzak argitzeko, lasai jarri gurekin harremanetan: idatzi, harremonak@gmail.com edo deitu, 628 947 235.

Laster elkar ikusiko dugulakoan, jaso gure agurrik beroena.

Edurne Mendizabal Tolosa
Ibon Arrizabalaga de Mingo
Asier Baglietto Gabilondo
ARREMANITZ KOOPERATIBA

◆ ERAKUSKETA BITERIN

Down sindromea ardatz hartuta, 'Bateginik' erakusketa martxan da Biterin

Sofia Arostegik eta Jose Luis Elexpe Pelex-ek erakusketa jarri dute Biterin, down sindromea ardatz hartuta. *Bateginik* izena jarri diote erakusketari, 24 koadro eta 10 eskultura biltzen ditu, estilo figuratibo eta abstraktua nahasten dituen. Atzo ireki zuten eta otsailaren 11ra arte zabalik dago, 18:00etatik 20:00etara. Dena dela, inaugurazio ekitaldi ofiziala ostiralean egingo dute, 19:15etatik aurrera. Inaugurazio ekitaldian Verdini dantza taldearen aktuazioa izango da, eta luntxa jarriko dute. ■

◆ OBRAK

Txillida pasealekuan obrak gaur

Gaur goizetik arratsaldera Txillida pasealekua itxita egongo da obrak direla eta. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, goizeko 07:00etan hasi eta arratsaldeko 15:00ak arte pasealekua konpontzen ariko dira langileak. ■

◆ EPA-HHI

Graduatua, hizkuntzak eta informatika ikasteko aukera, Antzian

Antzian helduentzako EPA-HHI zentroan aukera paregabea dago graduatua atera, informatika ikastaroa egin edo inglesa eta euskera ikasteko. Matrikulazioa zabalik dago ostiralerako bitarte (10:00-12:00 eta 17:00-19:00. Telefonoa: 943 33 53 18). ■

◆ ELIZA

Seme-alabak hezteko ikastaroa

Guraso Eskola antolatuko dute aurreko Inmakuladaren, gurasoei nortasunean nola hazi eta seme-alabei baloreetan nola hezi erakusteko. Aurreneko topaketa otsailaren 7an izango da, 16:45etatik 18:00etara, eta izena urtarrilaren 30a baino lehen eman behar da. Inmakuladaren edo Parrokiko bulegoan (Izpizua 3). ■

◆ 'GOZATUA HERNANIN'

Taldean egiteko plana: 2 orduko ibilaldi gidatua eta Larre-Gainen bazkaria

Bi orduko ibilaldi gidatua eta Larre-Gainen sagardotegian otordua eskaintzen du *Gozatua Hernanin* ekimenak. Eskaintza hau, asteartetik igandera, goizez izango da urtarilean zehar. Eta 20 pertsonako taldea osatu beharko da gutxienez. Otsailetik irailera, arratsaldean ere izango da aukera. Prezioak: 33 euro (28 euro sagardotegia+5 euro irteera) eta 12 euro, haur menua. Izena emateko: 943 49 50 69 edo 943 55 58 46. ■

◆ MUNGIAKO SAN ANTONTXU BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Legorbururentzat, Mungia saria ere

Iñigo Legorburuk makina bat bertso-paper lehiaketa irabazi du eta orain bi aste ere, bera izan zen saritua Mungia XVIgarren San Antontxu bertso-paper lehiaketan. *Oztopoen aukerak* lanagatik jaso zuen saria. Hain zuzen, 300 euro eta Taket oroigarria. ■

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

ETxea salgai, 63 m2, 2 logela, kalerakzioa, trastero eta igogailua. Eguzkitsua, Antzian. Prezio berria: 160.000 €. Deitu: 665 713 525

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)